



**NIK, ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ, ZUMAIAKO UDALEKO BEHIN
BEHINEKO IDAZKARIAK**

ZIURTATZEN DUT

2023ko apirilaren 27ko Ohiko Osoko Bilkuran ondorengo irizpena onartu zela ondorengo botoekin (17 aldeko botoak-9 EH Bildu; 7 EAJ-PNV, eta 1ES-SV)

**“2023KO AURREKONTUA GAUZATZEKO UDAL ARAUAREN ALDAKETA
ONARTZEA”**

LEHENA.- 2023ko aurrekontua gauzatzeko udal araua aldatzen da, bertan, 4.3.artikulua aldatzen da, Kirol Patronatuko kreditu zabalkor bat gehiago sartzen delarik arauan.

BIGARRENA.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 2003/21 Foru Arauaren 15. artikulua, agindutakoa betez, jendaurreko erakustaldian jartzen da, hamabost eguneko epean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunetik zenbatuta.

HIRUGARRENA.-Erabakia behin betiko bihurtzeko, araua bere osotasunean argitaratu beharko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean onartutako aldaketekin, alegaziorik izan ala ez.

LAUGARRENA.-Alkateari erabakitakoa betearazteko beharrezko den beste agiri izenpetzeko ahalmena ematea.

Hala jasota gera dadin, eta dagokion ondorioetarako, ziurtagiri hau ematen dut,

Zumaian,

IDAZKARIA

O.E. ALKATEA

Dokumentu kod.	2023KAOR0001-A23/04495
CUDO kodea	000.0081.AAAAED9N.T.QdKI
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAAED9NT.QdKI